

# Alemanak eta Baionako Eliza (1940-1944)

(The Germans and the Church of Baiona 1940-1944)

Xarritton Zabaltzagarai, Piarres  
3 Impasse Port-Neuf  
64100 - Baiona

BIBLID [1137-4454 (1997), 14; 203-215]

---

*Hitzaldi honek bi zati ongi bereziak ditu: I.a, oroitzapenak; II.a, idatzizko lekukotasunak. Lehen zatia, 1940-1944 bitarteko okupazio alemana bizi izan zuen apaizgai gazte baten oroitzapenek osatua da: Baionako apaizgaitegian aurrenik, Miarrizkeko Saint-Martin parroki eskolan gero eta, azkenik, Hazparniko Saint-Joseph ikastetxean. Egileak frantses armadaren ihesaren ikuskaria eta alemaniarren etorrerak eragindako zirrara oroitarazten dizkigu. Geroago 2. AINTZINAren abenturarekin batera, agintarien jarrerak sortu kontzientzia-arazoak, adore-egitateak eta koldarkeriak, garaiko nabarmenkeriak, salaketak, ustelkeria, etab. gogoratzen ditu. Bigarren zatia, lehen buruan, Jose Migel Barandiaranen testigantza biltzen du. Sarari buruz, Eusko-Folklore Urtekaria aldizkarian, Donostia 1971-1972, argitaraturiko artikularen arabera, bai eta 1940-1943 bitarteko Elizbarrutiko boletineko pasarte esanguratsu batzuk, eta, azkenik, 1940-1944 bitartean ESKUALDUNA astekariko zuzendaria zen S. Arotçarena apaizak argitaratu testu batzuk.*

*Giltz-Hitzak: Alemanak Iparraldean. II Mundu Gerra. Okupazio alemana Euskal Herrian. Euskal Eliza. Aintzina.*

*La conférence comprend deux parties bien distinctes: I oroitzapenak "souvenirs"; II lekukotasun idatzi batzu "quelques témoignages écrits". La première est constituée par les souvenirs les plus marquants d'un jeune séminariste, qui vécut l'occupation allemande entre 1940 et 1944 d'abord au séminaire de Bayonne, puis à l'école paroissiale de Saint-Martin à Biarritz, et enfin au collège Saint-Joseph à Hasparren. L'auteur rappelle le spectacle offert par l'armée française en déroute et l'impression produite par l'arrivée des allemands. Il évoque ensuite l'aventure du 2ème AINTZINA, les problèmes de conscience posés par l'attitude des autorités, actes de courage ou de lâcheté, scandales de l'époque, délations, corruption, etc. La deuxième partie reprend d'abord le témoignage de Jose Miguel de Barandiaran d'après l'article publié sur Sare, dans la revue Anuario de Eusko-Folklore, S.S. 1971-1972, puis des passages significatifs du Bulletin diocésain de 1940 à 1943, et enfin quelques textes du directeur de l'hebdomadaire ESKUALDUNA, l'abbé S. Arotçarena, parus entre 1940 et 1944. On en vient à se demander, si de tout cela on a su tirer les leçons qui s'imposaient?*

*Mots Clés: Allemands en Iparralde. II Guerre Mondiale. Occupation allemande dans le Pays Basque. Eglise Basque. Aintzina.*

*La conferencia comprende dos partes bien distintas: I oroitzapenak "recuerdos"; II lekukotasun idatzi batzu "algunos testimonios escritos". La primera está constituida por los recuerdos entre 1940 y 1944 primero en el seminario de Bayona, y luego en la escuela parroquial de Saint-Martin en Biarritz, y por fin en el colegio de Saint-Joseph en Hasparren. El autor recuerda el espectáculo de la huida del ejército francés y la impresión producida por la llegada de los alemanes. Después evoca la aventura del 2º AINTZINA, los problemas de conciencia planteados por la actitud de las autoridades, actos de valor o de cobardía, escándalos de la época, delación, corrupción, etc. La segunda parte recoge primero el testimonio de José Miguel de Barandiaran según el artículo publicado sobre Sara, en la revista Anuario de Eusko-Folklore, S.S. 1972-1972, y algunos pasajes significativos del Boletín diocesano de 1940 a 1943, y, por fin, algunos textos del director del semanal ESKUALDUNA, el abad S. Arotçarena, publicado entre 1940 y 1944. Se llega a preguntar uno si se han sabido aprovechar las lecciones que se imponían.*

*Palabras Clave: Alemanes en Iparralde. II Guerra Mundial. Ocupación alemana en el País Vasco. Iglesia Vasca. Aintzina.*

Jaun andere agurgarriak,

“Alemanak eta Baionako eliza” tituluak berez eremu zabala hartzen du, menturaz zabalgegia: Eliza? Zein eliza? Nor da? Non da eliza? Bestalde nor naiz ni gai horretaz mintzatzeko?

Halere ene lekukotasun apurra, lagungarri izan daiteke, hemen eman diren beste lekukotasun nasai eta miresgarrien ondotik, gogoan hartu behar baita gizarte batean beti guti, biziki guti direla, gauza miresgarri eta loriosak egiten dituztenak.

Gehienak ixil eta geldi egon ohi dira, non ez diren alde agertzen, erran nahi dut etsaieren alde. Halakoak ere entzun eta ikusi baititugu alabaina, eta ez ziren hain guti.

Eta guhaur beraz non ginen? Ba ote genekien guhaurk batzuetan xuxen non ginauden, non genbiltzan? Balentria handirik egin ez dudan denbora ilun haietako ene oroitzapenak nahi nituzke lehenik zuen aitzinean kurrutu. Eta gero aipatuko ditut Baionako elizaren ingurutik orduan jalgi ziren idazki zenbait, zuetarik bakoitxak berrirakur ditzakeenak, nahi badu bederen, ez orai berehala, baina gero ausnarruaren gainean, zerbait fruitu edo irakaspen ateratu, orduan gure xokoan gertatu gertakarietarik.

## I OROITZAPENAK

### 1. 1940-1941

Eta nonbaitik hasteko, erranen dut orduan 18 urte baizik ez nituela, baina 18 urte bai halere, eta batxilergoa iragaitea etorria nintzela ene lagunekin, Uztaritzeko apezgaitegitik Baionako Lizeora. 1940 eko ekainaren 18 an, Londresetik De Gaulle izeneko jeneral ezezagun batek kridatu zuen dei famatu hura, nehor gutik orduan entzun zuena, nik Baiona Saint-Etienne parropiako apezetxean entzun nuen irratitik, Paul Durquet erretoraren mahaietan.

Paul Durquet kalonjea gure aitaren lehengusua zen, eta gainera gure aita altxatua zuen, 14 - 18 ko gerla hastean kolpatua izan zelarik. Nihaurek zenbat aldiz ez nituen entzunak haien gerlako historiak, Craonne, Douaumont, eta Verdun-ekoak! Laket zitzairen alabainan bi lehengusuei, Alemanek gure aita preso hartu zuten arte, biek elkarrekin bizi izan gertakariez elkarrekin gogoratzea. Eta gero gure kusi apezak, sarjant, lotinant, kapitain eta komandante mailara heldurik, 1918 ko garaitaldiaren ohoretan, 49. erreximendu ospetsuaren aitzinean Baionako karriketan ibili urratsak, nintzen haur hotz aspertu honek maiz entzunak nituen goraiatzatzen. Bizkitartean 1940 eko ekaineko gertakariez, erretor komandanteak zer komentario egin zuen, ea komentariarik batere egin zuen ere bere mahaietan, ez naiz orai tutik oroitzen. Egia da, etxen ere ixilik egoten, bakoitzak berea gogoan, ikasi genuela denok Alemanen denboretan.

Baionatik Hazparnera itzuli-eta, gogoan dut bada, zer ikusgarria izan genuen Hazpandar guztiek Frantziaren soldadu galdu etsituekin: nola soldadu haiek beren armak aurkituzten zituzten Hazketa zolako bide bazterretan, edo nola haien aitzindariak, beribil txar bat eta zenbait ezantza pinta bildu zituzten ber, etorri ziren zein lehenka, etsaiaren aitzinean ihesi, Pirinioetako Urtsumendi behean dagoen San Josepe ikastetxeko mandiopean beren beribil txarren aterbetzera. Ez ziren luzaz egon soldadu frantsesak Hazparden gutartean, eta Maulera buruz joan ziren zalu, han gaindi Frantzia, libre beharra omen baitzen. Gu aldiz Alemanen menpeko egon beharrak ginen.

Egun guti barne Aleman soldaduak Hazparden genituen, beren jantzi berde eta tresna distirantekin. Zergatik ez aitor ez zitzaizkigula lehen begiradan hain beldurgarriak iduritu? Izatekotz ere, miresten genuen gizon gazte larri horien janiza: Zer xokolet paketak, zer arraul-

tze dozenak ez zituzten irensten! Denek beti goseak hilak iduri zuten. Eta orduan agertu berri baitziren gure lursagar alorretan marmutza berde jangile batzu, “doriforoak” deitzen zirenak, laster ikusi genuen marmutza haien eite handia bazutela Hitler-en gizonak, eta hauek ere “doriforoak” deitu genituen.

Guk ordea Baionako apezgaiek, gure oporrak gure etxen prestuki iragaiten genituen, apezpikutegitik uste baino lehen, irailaren hastapenean, seminariora sartzeko deia izan genuelarik. Eta buruzagien dei hori izanik, sartu ginen xintxo Baionako seminario handian, Alemani aitzinka, gure ustez haieri sartzea debekatu beharrez.

Kontuz ibiltzeko gomendatu ziguten, “xoria adarraren puntan” bezala, baikinauden omen delako seminarioan. Frantses armadak ordu arte ospitaletzat erabilia zuela etxe hori erran behar da. Ez da beraz harritzeko han sartu orduko aitzindari Alemanak etorri baitzitzaizkigun ikustera.

Eta Aleman aitzindariak idekitzen duten lehen solairuko lehen gelan aurkitzen dute gure lagun bat bere bulegoan jarria, edergailu dituela sei bala distirant, zut-zuta, bulegoaren gainean, frantses soldadu zenbaitek menturaz ahantziak. Ez zuten hitzik erran Alemanek, eta ez zukeen ixtorio horrek ondoriorik izan, baina zenbait egunen buruko, lekuak husteko ordena etorri zitzaigun seminariora.

Orduan ikusi nituen ene apezgai lagunak harramaskan lotzen, lapurrak iduri, frantses ospitaleak utzi hondarkin guztiei: nehongo oihal, mihise, trapu, erremedio, denak on ziren, etsaiaren esku ez uzteagatik, zure kutxan eremaiteko. Aberriaren izenean egiten den lapurketa ez dela ohointza, ikasi nuen orduan, eta nihaurek mihiserik ez oihalik ez banuen ere “etsaiaren aztaparretarik salbatu”, aitortu behar dut seminarioko sotoetan gelditu aldizkari ale bat edo beste eraman nuela etxera nirekin.

1940 eko irail hartan ezagutu nuen ere Baionako seminarioan morala erakusten zuen Théas kalonjea, Montauban-eko apezpiku izendatu berria, gizon xehe eta atsegina, Euskaldunak, bai eta Hegoaldekoak ere, asko maite zituen Biames apeza; bere liburutegia plegatzen laguntzen genuen apezgaiekin jolasten zen, bere apezpiku zapel ederra gutarik bati edo besteari buruan jantzi.

Baionako katedralean urriaren 5 ean eman zuen sagaratze mezan partehartu genuen Baionako apezgaiek, eta gero Théas joan zen Montauban-era. Gerla bururatzean jakin genuen zuzentasunaren alde hitzegiteagatik preso eramana izaiteko ohorea izan zuela, Frantziako apezpiku bakar bat edo bestek bezala.

Udazken hartan berean bigarren aldikotz etxen ukan genuen apezgaiek Baionan elkarretartzeko deia, baina oraingoan lehen urteko ikasleak Kaputxinen komentuan sartu ginen, eta besteak inguruko zenbait “villa”-tan. Eta horrela barriaturik, bete genuen Baionako apezgaiek, gure 1940-1941 eko ikasturtea.

## 2. 1941-1942

1941 ean bada, udako oporretan, etxeraino jin zitzaizkidan Ganix Diharce Iratzeder adixkidea, eta Mark Légasse haren laguna, biek asmatu xede baten berri emaitera. Biek ikusia zuten ordukotzat Piarres Lafitte gure irakaslea eta honen baimenarekin AINTZINA aldizkaria berpiztu nahiz bazabiltzan bidez-bide, etxez-etxe, zaldia eta karrosarekin, laguntzaile keta.

Beste lagun askok bezala ene baia eman nien, eta Haltsuko Domingoenean eta Baionako “La Presse” moldiztegian zenbait bilkura egin ondoan, udazkenerako gure aldizkari berria denen artean apailatu genuen.

Oporretako lanak bururaturik, aldizkariaren agertzeko baimenaren eta paperaren zain geundela, apezpikutegiak Alemanekin zerbaít antolamendu eginik, Baionako apezgai guziak seminariora itzuli ginen urriaren hastean.

Sartzeko egun berean ordea, Miguras adiskideak ekarri zidan Donibane Lohizunetik Ganix Iratzederren eskutitz labur bat, baizik eta goiko deia entzunik erabaki zuela Belokeko komentuan sartzea, eta AINTZINA aldizkaria Légassen eta ene gain uzten zuela.

Hitz dizuet hura izan zela enetzat zinezko ustegabea. Bizkitartean ondoko egunetan, Mark Légassek berak egin zituen eskas ziren azken urratsak, eta azaroan ez bazen, ez abenduan ere, urtarrilean bederen, atsegin handirekin eskuratu genuen lankide guztiek gure lehen umea. Ixilean eta kartsuki prestatzen genituen lagunartean ondoko zenbakiak, noiz eta ere behaztopatu baikinuen gure bidean.

Seminarioaren eta moldiztegiaren arteko mezularia Légasse genuen, baina Markosek Biarritze Etxeperdeko euskal liburutegi ederrean ezagutzak egin zituen etxeko alaba Katalina de la Sota andregaiarekin, eta geroztik ez genuen hainbeste ikusten seminarioan. Seminariotik kanpo bagenuen ordea lagun bat, Baionako Saint-Louis ikastetxean, eta honek ararteko lan bera egin ziezagukeen. Zorigaitzez gure arartekoak eskutitz bat igorri zien Lapurdiko jaun apez guziei, jakinarazteko euskal aldizkari bat hartua zutela apezgaiak beren gain eta artikulu guztien argitaratzeko prest zeudela.

Ez zuen zinez asmatu Roger Etxegaray kardinalegaiak, lan hori egitean, ez zituen oraino diplomazia eskolak eginak: erretor batzuek haren eskutitza helarazi baitzioten berehala seminarioko buruzagi Biarnesari, eta honek, hasarre gorrian, abisatu zituen gure bi irakasle euskaldunak, Narbaitz eta Larralde, jakinean zeudenak. Hauek apezgaiak deitu gintuzten, eta batzuek uko egin behar izan zioten beren sailari, bestek berriz izenordeak asmatu genituen jarraitzeko: "Ordaina" eta horrelako.

Ondoko hilabeteetan, seminarioan genituen trabak ikusiz, Piarres Larzabal Hazparneko bikarioaren esku ezartzea aldizkaria gogoratu zitzaigun guhauri, eta bikario gazteak egitasmu miresgarri bat itzulikatu zigun jarraian, baina apezpikutegiko baimena eskatzera joan zelarik, apez prestu baten gisan, apezpikutegiko jaunen baldintza bakarra izan zen, abertzale kutsurik ez zuela izaneko aldizkariak espreski adieraztea lehen zenbakian berean.

Piarres Larzabalek errazki onartu zuen orduan apezpikutegiko baldintza, ez baitzen bera oraino batere sartua abertzaletasunaren uretan; baina ez Légassek ez gutarik batzuek nehindik ez genezakeen onar horrelakorik. Horra beraz zergatik uko eginarazi genion Larzabali, hasi gabe ere.

Orduan Piarres Lafitten eskutan ezarri genuen berriz, berak sortua zuen AINTZINA, eta honek harpidedunei bidali zien ERREPIKAN euskal kantu zaharren bilduma eta ALMANAKA.

Anartean, Baionako apezgaiak, seminarioko Aleman soldadoekin batean gure ohiko kaperan Eguberriko meza latinez, jakina, kantatu genuenak, seminariotik kanporatuak izan ginen denak, bigarren aldikotz, Bazko irian, eta gure bigarren ikasturtea Baionako Saint-Louis ikastetxean bururatu genuen horrela 1942 ko ekainean.

Urteburu horren oroitzapen bat badut halere galdu ez dudana: Lamirand Jauna, Pétain-en ministroa etorri zitzaigun ikastetxe horretara eta ongi etorria egin zioten gure buruzagiek, apezgai guztiek kantatzen ziotela, "Maréchal, nous voilà!" kantu famatua. Bat edo beste izan baitzen ordea kantatu nahi ez zuena, "jujamendu makurraren seinale" zela, entzun zuen delako Kaskotzarrak. Non eta nork hatzeman behar zuen ordea urte haietan egiazko "jujamendu xuxena"?

### 3. 1942-1943

Hirugarren ikasturtearentzat apezgai gehienak igorri zituzten Donibane Garazira eta han izan zirenek diote urte alegeraia ereman zutela Maiorgako eskoletxean. Gure urteko lagunak aldiz irakasle bezala igorriak izan ginen, eskuin eta ezker, diosesiako eskoletara.

Apezpikutegiak agertu zuen azken Bulletin-ean irailaren 27 an irakurri nuen Biarritzeko San Martinera izendatua nintzela, eta urte aberatsa iragan nuen, ez bakarrik han irakaslegoan lehen urratsak eta lehen hutsak egin nituelakotz, bai eta lehen hilabetesariak irabazi, baina ere bai apezetxeko mahainean janez egun oroz, hurbiletik ohartu baitnintzaion apez-munduaren barneko biziari: Ordu arte elizako beretter izan banintzen, orduz geroz apezgai bezala partehartu nuen elizaren bizitzan: adibidez, Leon Agerre erretorak eta Saint-Pierre apezpikuak elkarrekin maiz zerabiltzaten eztabaida filosofiko-politiko luze eta beroen lekuko ixila gertatu bainintzen.

Bi gizonak alabainan, erretor Amikuztarra eta apezpiku Lapurtarra, biak baseritar seme errotik euskaldun eta euskaltzaleak, biak gerlari ohiak eta ideologia aldetik bide beretsutik ibiliak eta betiko adiskide minak izanak, maiz elkarretaritzen ziren Biarritzeko Agerren etxean eta orduan sortzen ziren bien arteko solas kontrajarriak; erretora aleman-zalea bezain ingeles-zalea baitzen apezpikua; edo hobeki erraiteko, batek ikusten bazuen alemanek eta japonesez gaina zutela, besteak sumatzen baitzuen ingelesek, amerikanoek eta rusoez azkenean irabaziko zutela. Oroit gaitezen urte hartan gertatu zirela, Afrikan eta Asian, itsasoko ala leihorreko ala aireko bataila izigarriak, gero Europari buruz hurbilduko zitzaizkigunak!

Biarritzen ezagutu nituen ere beste bi apez bederen, aipatzea merezi dutenak: Lehena Janpiarre Urrikarriet eskolako zuzendaria, hantik laster Mugerreko erretor gazte zelarik "pankreatitis" gaizto batek ereman zuena. Seminarioko ikaskide gehienak bezala, "Action Française" deitu frantses nazionalismo zorrotzenaren barnean hazia eta hezia izanik, bera euskal nazionalismo gogorrenera etorria zen. Asko zor dio Iparaldeko abertzaletasunak gizon horri.

Haren jarraitzaletarik izan dira Eugène Goyhenetche historialaria, Filipe Oihanburu artista, Abeberri-tarrak eta beste frango. Hark beharra zuen Mugerreko apezetxean aterbetu lehen Euzkadi Irratia, Mugerreko eskolan Jeanne Marie Malharin anderenoarekin bultzatu elebitasuna, eta Mugerreko elizan Paul Giltzu apezlagunarekin probatu Belokeko Beneditarren euskarazko liturgia.

Baina horiek oro baino lehen, Biarritzen berean, euskararen erakaskuntza abiatu zuen arratsetan Urrikarrietek, ni bezalako irakasle apendizekin, eta ber denboran, euskal dantzari gazteak bildu zituen Olaeta-ren inguruan, maiz gogoratzen zuela, orduan oraino nehor gutik aipatzen zuen Mao-Tse- Tung delako baten errana: "zangoetarik sartzen da Iraultza".

Gizon horrek berak eskuratu zion, nintzen hogoi urteko mutil gazteari, Jean Paul Sartre, irakasle ezezagun baten "L'Être et le Néant" liburu agertu berria. Jarraian entzunarazten zigun Beethoven-en 7. sinfonia, lehen aldikotz grabatu zen Gaumont etxearen diskoa; "Hori ene ehortzetan adierazteko" komentatzen zuela, iragarpen ilun batek harturik bezala.

Horra nolakoa zen Janpiarre Urrikarriet, Aldude Alastaineko apez zena.

Biarritzen ezagutu nuen bigarren apez adiskidea, don Gelasio Aramburu, Gipuzkoatik ihesi etorria, izan zen: Artista fina bai hau ere, "Sine Nomine" aita Donostiak abiatu koruaren zuzendaria, Saint Charles parropian, nahiz San Martineko parropian zuen bere apezlan handiena, ixil-ixila egiten zuena. Hura nuen ene kofesora, buruz buruan, zortzitik, bere egoitzan mintzatzen nuena.

Gaztelagun asko bezala, “kontzientzia kasu” batean gertatu nintzen ni ere urte hartan: Vichy-ko gobernuak hitzartu baitzuen Hitler-en gobernuarekin, ez dakit zenbat ehun mila gazte igorriko zituela Alemaniako armeria lantegietara, Alemaniatik beste hainbeste presonier etxera itzuliko zirela hitzemanaz. Lege berri horren arabera galdea etorri zitzaidan bada, ikasturtea bururatzean, Stettin hiriko lantegietara, Alemaniara joan nendin. Eta horra nola, gure irakaslek latinez “casus conscientiae” deitzen ohi zituzten mamuak buru-bihotzetan sartu zitzaizkidan.

Lehenagotik ere, Piarres Lafittekin ikasia genuen, Loiolako maisuak erakusten zuela, nola Jainkoaren nahi zuzena ezagutzeko, eta Haren deia ongi aditzeko, bereizten ziren “izpiritu zuzenak, eta izpiritu makurrak”.

Franco eta Mola-ren jazarkuntzari buruz, adibidez, Espainiako apezpikuen katixima zalantzan jartzeko arrazoiak ekarriak zizkiguten euskaldun zenbaiti, ez hain aspaldi, Jacques Maritain, Charles Journet, Luigi Sturzo, eta beste teologo bakan baina argi batzuek: “Sept” astekaria, eta “Aux origines d’une tragédie” liburua ordukotz irakurriak baigenituen.

Baina Pétain-en gobernuaren legediari eta legitimitateari buruz nehor gutik zuen oraino gure inguruan demendreneko dudarik adierazten. Funtsean Alemaniara deituak ginen apezgai guztiak seminarioa bildu gintuzten eta gure buruzagiak –ez zen bada bera ez Francozale, ez Mussolinizale, ez Pétainzale– denori erran zigen eginbide zorrotz eta larria genuela legeko gobernu bakarraren sinestea eta Alemaniara joaitea. Ez bagenuen obeditzen, ez omen gintuzten geroago seminarioan onartzen ahalko.

Bagenekien bizkitartean beste eliza erakunde batzuetako buruek, hala nola Pariseko “Missions Etrangères” etakoek, edo hurbilago Beloeko beneditarrek, beren gazteak Alemaniara buruz bidaltzeko orde, Hegoaldera igortzen zituztela.

Berri horrek ene zalantzak indartu zituen, nola ez? Alde batetik, Alemanen eta beste guztien arteko gudukan aspalditik ene hautua egina nuen, nahiz jitez izigarri beldurtia izanik, ez nuen behinere nihaurk harmak erabiltzeko gogorik izan. Bestaldetik, etika hutsaren ikuspegitik, eta ez nehongo frantses boterearenetik, nahi nuen ene erabakia hartu: hots, Alemaniara joaitea ez zitzaidan gogoan pasatu ere, baina mugaz bestaldera igan behar nuenentz, ala etxen gelditu, hori ez nekien?

Zalantza horretan nindagoela, ikusi nuen bada don Gelasio Aramburu eta honek argitu zidan bidea: “Elizaren buruek ez dakitelarik zer egin, eta gai bat beren artean eztabaidatzen dutelarik, erran zidan apaiz zintzoak, horrek adierazten du maizenik berenak ez diren gaietan sartu direla elizagizonak, eta orduan Jainko onak guri hurbilenik jarri dituenek zer dioten, hots, zer deritzen gure buraso, haurride eta etxekoei, behar dugu bakoitzak ikusi”.

Horrela erabaki nuen beraz, etxekoen erranari jarraikiz, etxen gelditzea. Eta geroztik ere behin bainotan baliagarri gertatu zait, beharrorduan nihaurk baliatzeko, edo berdin besten laguntzeko, aita Arambururen aholkua.

Ohartu naiz gainera aholku eder horrek teologia argienean dituela bere erroak: Tomas Akinokoak berak errepikatzen digu frangotan alabaina “graziak ez duela sekulan natura ezetzatzen”.

Bestalde apur bat ezagutu dugun de Lubac jesuitak - Erroman ikasle ginelarik Erromako Pio XII.ren aholkulari ziren gure irakasle batzuek surtara eman nahi zuten hark berak - gogoratu digu maiz ahantzi den printzipio nagusia, hots, “inperialismo guztietarik arriskutsuena inperialismo izpirituala” dela.

Bi puntu horiek, gure ustez, ez litzuke kristauak nehoiz ahantzi behar.

#### 4. 1943-1944

Dena dela, 1943 ko udaldian, ene lagunak bazoazela batzu Alemaniako lantegietara, Pétain-en manuari jarraikiz, besteak mendiz bestaldera, Iruneako, Gasteizeko eta Lazkaoko apezgaiategietan aterbetzera edo Miranda del Ebro-ko zelaian preso egon ondoan, De Gaulle edo Giraud jeneralen tropetan sartzera, beste zenbait, ixil-ixila, etxen gelditu ginen.

Hona non orduan ustegabeko arrotza etorri zitzaidan etxera; ez ordea arrotz alemana, ingelesa baizik: aitzindari gazte bat, eroria zena Bretainia gainean, Saint-Nazaireko portua bonbardeatzera zetorrelarik, eta gure etxen aterbetu zena bizpahirulau astez, abuztuaren erdian, bestaldera iragaiteko bideak aurkitu genituen arte. Ez naiz ixtorio bitxi horren xehetasunetan sarturen erraiteko, nola diru eskasez Heletatik gibelera ekarri ziguten gure ingelesa, eta nola azkenean Zelaitar batek urririk ereman zuen.

Gerla ondoan, ingeles aitzindariaren burasoen karta bat igorri zidaten etxera, semea berriz airekoetan sarturik Iparraldeko itsasgainen erori eta hil zela berria emaitako. Ingeles zerbitzuek berriz dei egin zidaten Toulouse-ra joan nendin medaila baten hartzera, “uniformerik gabeko soldadu” izan omen nintzelako. Ez nuen Tolosara joaiteko gogorik izan, baina erran behar dut Baionako “Frantses zerbitzuek” ere deitu nindutela beren bulegoetara, susmagarri baitzitezkeen haientzat “arrotzekilako” harreman guztiak.

Dena dela, 1943-1944 eko ikasturte hartan, etxetik beretik, parropiako eskolan iragan nituen lehen hiru hilabeteak, 6-7 urteko ikasle astomakilak erakusten nizkiela. Gero urtatsetik hara ene jakitatea hobeki baliatu behar zela, edo nik dakita, Gaztelu kalonjeak zuzentzen zuen alboko ikastetxera igan nintzen, eta 6.eko gela bat ene esku ezarri zuten, 12 urteko ikasleak jakintza guztietan (?) argitu behar nituela, nihaur lehenago etxe berean, eta ontsa oroit nintzenez, asko gostarik, egin ninduten bezala.

San Joseperen ikastetxean, beraz, gauzak ez ziren hain gaizki joan bigarren egonaldi horretan, eta geroxeago, etxe berera, eta buruzagi beraren ondora hurbildu beharra nintzen oraino bi aldiz: lehenik, irakasle bezala, apeztu-eta, Erromatik lekora, 1948tik 1950 ra, eta bigarrenekorik 1960ean, buruzagi berri bezala, ene sorterrian lur berriak hausteko mezu eta xede arriskutsuarekin. Baina hori beste ixtoria bat da, ene biziko sei urte gogorrenak hartu dizkidana.

1944 eko lehen sei hilabeteetan bada, Hazparneko kolegioko behategitik bizi izan nituen Alemanek Euskal Herrian iragan azken hilabeteak: Gure arteko Alemanak, soldado zahar batzu ziren orduan, presonier Mongoliarrak bazeuzkatenak beren zalditeriaren artatzeko. Baina ordu batetik hara, “sasipetarrak” zirela eta –nahiz Euskal Herri osoan ez zen agertu “sasipetarrik”, Zibero aldean baizik, eta han ere azken asteetan– zainen gainean ziren gure zaintzaleak eta erraz tiro bat botako zizuten iluna erori orduko. Horrela genituen, arratseko 10 ak irian, gure gelako gelatik 100 metroan entzun bi tiro. Eta biharamunean, jakin genuen bi Hazpandar gazte hil zituztela, Tipy eta Irigoien, Hazketako festatik etxera bakean sartzen zirelarik.

Gure beste gazte lagun bat ere Goutenègre izenekoa, mugaren bestaldera iragan ondoan, Espainolek ezarri zutela Alemanen eskutan, jakin genuen, ez baitzen sekulan itzuli behar Alemaniako zelaietarik.

Bestalde Gestapoko poliza ernerik zegoen, muga alde guzian, mugausleak hatzeman beharrez, eta Ahurtiko Beneditarrak mugausle horiekin lanean ari baitziren, haietarik bat, aita Darmendrail, itzuri baldin bazitzaien ere, 1943 ko abenduaren erditxuan jakin genuen, hiru buruzagi, aita Hondet abadea, aita Joannategi eta aita Darricau, hazpandar laguntzaile batzuekin batean Alemanek sarean hartu zituztela.

Haiekilako Hazparneko gerlari ohi batek, Teilletxea zenak aitortu zidan, Baionako pre-sundegitik itzuli eta, ez zuela sekula bere bizian ahantziko, hiru aita beneditarrek bakoitza bere gelatik arrats guziez elkarrekin batean kantatzen zuten "Salve Regina". Ez zen bada gure gizona elizatiar beroetarik.

Hari beretik gogoratzen zait zenbait urte geroxeago, Erroman ikasle nintzelarik ezagutu nuela apezgai gazte bat, Noisette izenekoa, gaur naski Nancy-ko bikario jeneral dena. Berak aurkitu eta ezagutu zituen Dachau-ko herio zelaian bilduak ziren apez eta apezgai-en artean, Belokeko bi fraideak eta Daguzan Pabeko bikario nagusia.

Presondegia zabaldu zen eguneko meza nagusian predikaria aita Hondet izan omen zen eta bere 5000 apezlagun presoekin egin zien, latinez, ezin ahantzizko hitzaldia.

Presondegitik atera aitzin ordea, preso guztiek Amerikar aitzindari bati eman behar zituzten preso sartu zituztelako arrazoiak, eta elkarriketa bitxi honen lekuko izan zen Noisette gaztea:

"Preso sartzearen arrazoa zein den? –Kristau karitatea." –zioen aita Hondet abadeak aitzindariari.

Honek ordea: "Beste zerbaitez ez ote dezakegu jar, Jauna? "résistance" edo horrelako?"

Abadeak orduan beretik: "Ez ez, emazu, Kristau karitatea! Besterik ez."

Baina gibeletik aita Joannategi prioreak: "Bai, bai, emazu horrela "résistance".

"Horra bi gizonak!", komentatu zidan Noisette adiskideak, eta gaurregun ez duke ahan-tzi aspaldiko lekukotasun hori.

1944 eko udaberriko arratsalde eguzkitsu batez, haur zain nengoelarik bazkalondo, oroi-tzen naiz bada, miretsi genuela itsasaldetik lerro lerro, lertsunak iduri, zetorren airezko disti-ranten hegaldia.

Oren baten buruko jakin genuen telefonoz jin albistea, hegaldia eder horrek ehun bat Biarritzarrei, eta Baionako lizeotik hondartzara itzuriak ziren ikasle gazte batzuei ekarri ziela herioa.

Gisa oroiz denok sendi genuen gertakari larriagoak oraino bazetozela. Eta gizartean gero ta nabariago zen zatiketa: 1943 ko azken egunetan diosesiaren buruzagia bapatean hila zitzaigun, oihartzun handirik altxatu gabe bere inguramen hurbilean. Pétain-zale ziren alabaina itsutuki apez ala laiko, jende gehienak. Biziki guti ziren apezpiku zenaren mezua entzun nahi izan zutenak, hots, eginen zuela noizpait errotak itzulia, eta Hitler-ek ere bere aldia. Eta bururaino beren hartan gogor egon ziren bakarrak.

Bazirudien bizkitartean, Amerikarrak ekain hastapenean Normandian leihorreatuz geroz bereziki, uste ez zen aldera itzultzeraz zola haizea, eta ondorioak agertu ziren azkenean gizartean.

Ez dizuet erranen zer nolako partiada egin zuten Alemanek Hazparne edo Baiona alde-tik, 1944 eko abuztuan, ez bainituen joaiten ikusi: Ene aitaren sorterrian, Oragarren nintzen orduan, eta ordurarte ixilik eta gorderik zeuden itsasaldeko zenbaiten balentrien oihartzunak haradino heldu zirenen lekuko gertatu nintzen.

Amikuzeko apez eta laiko Pétainzale prestu beti ezagutuak nituen jaun eta anderen mahainean entzun nituen orduan lehen aldikotz elkarri zorionak eskaintzen bi jaun handi; bat herriko seme apez bat, bestea haren ixileko gerlari lagun mediku bat, erdi Oragartarra. De



Gaulle publikoki goraiatzaten lehen aldikotz entzun nuen eta aldeko lagunak komentario hau egin zidan: "Bai gu laborariak, berdin De Gaulle horri jarraitzeko prest gaituk, Pétain-ek bezainbat egiten badu laborarien alde".

Izenak emaita haizu bazait, Berzaitz Donapauleko apeznausia zen mahaiburua, Maintenu apeza eta Lacroix Angeluko auzapez berri gaia, ziren bi F. F. I. A.-k, edo "frantses barne gudari" bipilak, Jean Errecart gerla ondoko deputatu-gai ixila berriz, ene aldeko laguna.

Udazkenean Baionako seminariora itzuli nintzen, lagun xahar eta berri asko bezala, eta horretan gelditzen dira Alemanen denborako ene oroitzapenak. Baina amaitu aitzin, labur bada labur nahi nituzke aipatu gai berari buruz idatzirik dauden beste lekukotasun batzu.

## II LEKUKOTASUN IDATZI BATZU

### 1. J.M. Barandiaran "Bosquejo etnográfico de Sara", (ANUARIO DE EUSKO-FOLKLORE, XXIV, 1971-1972, 59-102, orr.)

Gogoan hartu behar dugu 1940-1944. urteetan Jose Migel Barandiaran etnologo ezaguna Sarako herrian bizi zela, eta bere oharrak egunero idazten zituela. Ohar horiekin bada argitaratu zuen 1972 an, 50 orrialdeko lan interesgarri bat eta hor ikus daiteke, adibidez, nola kanpotik etorri historiaren haizeak osoki itzuli ziren 1942 tik 1945 era, bai Sarako plazan eta ostatuetan, bai Sarako elizan: ikus bereziki 63. eta 86, 87. orrialdeak, nola goitik behera egin zuten Ipar Euskal Herrian, Pétain-en ospeak, eta Alemanen larderiak.

### 2. Edmond Vansteenberghé, Baionako apezpikua, (BULLETIN RELIGIEUX, Bayonne, fin décembre 1939-27 septembre 1942)

1939 ko abenduaren 10 ean, Lille-ko katedralean, A.Liénart kardenaleak apezpiku egin zuen, Edmond Vansteenberghé, Strasburg-eko Unibertsitateko Flandriar teologia irakasle jakintsua, eta honek Baionako apezpiku alxia hartu orduko adierazi zuen, ez zuela amor emanen profeta gaiztoen lausenguei ez mehatxuei.

Hona zer zioen, Baionan sartzean, 1939 ko abenduaren 21 ean:

*"Venu de pays frontières au caractère bien marqué, attachés aux traditions et dans l'ensemble à la foi, en ces temps tragiques je viens vous rappeler la vertu du sacrifice et vous inviter à orienter plus que jamais vos regards vers la Croix du Christ. Notre monde est déséparé: des doctrines funestes trompent des peuples entiers sur nos origines et sur notre destinée. Au culte du vrai Dieu se substitue dans d'anciens pays jadis chrétiens l'athéisme ou le culte de ces nouvelles idoles qui s'appellent le sang et la race; la justice doit céder le pas à la force et la charité est bannie comme une faiblesse. Quoi d'étonnant à ce que dans un tel climat fleurissent la haine, l'envie, l'esclavage, la guerre avec toutes les horreurs qu'elle peut engendrer, quand tout sentiment d'humanité a disparu. Le salut ne peut venir que du Christ".*

Eta ondoko garizumako lehen gutunean idazten zuen:

*"En affirmant la foncière identité de tous les hommes, à quelque race qu'ils appartiennent, en revendiquant pour tous les peuples si petits soient-ils le droit à la vie, en empêchant que se poursuive la destruction des nations chrétiennes, en sauvegardant notre pays de*

*France du flot barbare et des doctrines païennes qu'il véhicule, ce sont nos traditions, notre foi, notre morale que nous défendons..”.*

Udako erauntsiaren ondotik aldiz, 1940 bereko abenduaren 29 an, honela mintzo zitzaigun gizona:

*“La défaite vous a consternés, l’occupation vous a humiliés, les privations que vous avez subies vous ont torturés et les spectacles dont vous avez été témoins vous ont blessés au coeur. L’année qui s’achève aura été pour notre patrie l’une des plus sombres de son histoire, elle restera pour chacun de vous l’une des plus tristes de sa vie. L’épreuve continuera...gardez vos esprits dans la lumière de la vérité..*

*Rappelons nous que le salut de notre pays ne dépend pas essentiellement du sort des armes, de la générosité du vainqueur ou de la libération du territoire. Il dépend surtout de nous-mêmes, puisque notre désastre militaire ne fut que la conséquence d’une cause plus profonde, d’un désastre moral”*

Eta geroztik Baionako apezpikutegetiko “Bulletin” aren idazkariak, Pierre Narbaits gure irakasleak, agertzen zuen artikulu ausart bat: “*La mort d’un sage*” titulupean, Henri Bergson filosofo juduaren ohoretan (1941/01/19).

Ondoko martxoan berriz gorapatzen ziren, C. Mathieu Akizeko apezpiku euskaldunaren gutuna: “*Révolution Nationale et Révolution Spirituelle*” deitua eta P. Théas, Montauban-eko apezpiku biarnesaren gomendioa: “*Soumission humble et confiante au Maître des Événements*”.

Apirilaren 6 eko zenbakian ordea, diosesiko Eskola Giristinoen zuzendariak, D. Lamy kalonjeak, sartzen zuen “Entre Nous” bere sail berezian, abisu adierazgarri bat, Viviers-ko 350 Eskola Giristinoetarik zetorrena: Goiz guztiez Ardèche departamenduko eskola horietan Frantses bandera altxatzen omen zuten, eta haur guztiek haren aituzinean xutik honelako “otoitza” (?) errepikatzen:

*“Sous le regard de Dieu, avec la protection de Marie notre Mère, obéissants aux consignes du maréchal Pétain Chef de notre Pays, Enfants de France, au travail, pour la famille et la patrie!”.*

Ez du bada iduri hori bera zela Baionako apezpikuak hemen gomendatzen zuen bidea, ezen honek, Pio XII. ak “Munduaren Antolamendu Berri bati buruz” Erromatik adierazi berri zuen erakaspena zioen helarazten bere jendeari, 1942 ko otsailaren 15 an, garizumakari.

Eta gainera gobernuaren aldeko leialtasuna finkatzeko giristino batzuek asmatzen dutelarik eskoletako haur guztier “leialtasunezko zin orokorrak” eskatzea, Baionako apezpikuak oroitazten du argi eta garbi, “*Mise au point*” titulupean, Pio XI. erakaspeneren arabera “zin egitea erlisioneko urratsa dela beti” (1942/06/14).

Ondoko hilabetearen ere, Garazi aldeko apez eta auzapez “kartsu” batzuek Kurutzefikak berriz ezarri nahi zituztelarik herriko etxetan eta herriko eskoletan, jaun apezpikuak idatzi zuen bere astekarrian: “nahiz kurutzefika leku publikoetan ezartzea ez den ez debekatu ez legezkontrako, ez dagokie jaun erretorei horrelako erabakien hartzea” (1942/06/12).

Bere erakaspena errepikatzen ahalko du behin oraino Vansteenberghen apezpikuak bere aldizkarian, labur eta argi diolarik “*Fraternité*” editorialean:

*“La personne humaine est inviolable et sacrée. Si la cité est menacée, elle ne peut l’être par une idée chrétienne. En revanche, elle ne peut être sauvée par une idée antichrétienne.*

*Mais l'injustice demeure l'injustice d'où qu'elle vienne et quelles qu'en soient les victimes".*  
(1942/09/20)

Zorigaitzez ondoko zenbakia, irailaren 27 koa, azkena izanen da, eta hortik aitzina, Baionako apezpiku bipilak ez du izanen nagusi aleman eta frantsesenganik ez paperik ez baimenik bere astekaria agertarazteko.

Ez da halere ixilduko, eta bere katedralean eginen du prediku garratz bat, urrunean eta geroan oihartzun izigarria ukanen duena: Alemaniara lanera deituak ginen gaztei oroitarazi zigun orduan lehengo mendeetan ere izanak zirela Asiriar buruzagi eta inperio indartsuak, guztiak geroztik suntsitu zirenak.

Aitortu behar dugu bizkitartean hemen berean, prediku horren ondotik aleman poliziak apezpikutegia inguratu zuenean, ez zela inguramen guztian erretor soil bat baizik izan, Bordarrampé kalonjea, katedraleko erretorea bera, apezpikuari bere elkertasuna erakusteko ausart izan zenik; beste kalonje eta apeznausiak ixilik urruntzen ikusi ginenen guhaurek.

Funtsean handik laster, 1943 ko abenduko goiz batez Edmond Vansteenberghen apezpikua ustegabearen bere gelan hila erori zen. Gaur egia da, haren izena eman diotela katedrale aitzineko plazari, baina ez dugu ahanzi behar halere, zein gaizki hartua izana den bere orduan haren erakaspena gure Herri buruzagi gehienen partetik.

### **3. Sauveur Arotzarena kazetariaren eta beste kristau askoren teologia (ESKUALDUNA, 1940-1944)**

Baionako apezpikutegiak 1940-1942 urteetan argitaratu zuen astekari ofiziala irakurri eta, ikertzen delarik non zebilen astez aste, Domingo Soubelet Hazpandar kalonjearen ondotik, Xalbat Arotzarena Isturiztar apezak eskuratu berri zuen "Eskualduna" astekaria, errazki ikusten da Baionako apezpikuaren bidetarik urrun zebiltzala gure kristau, apez eta apezpiku anitzak.

Ezen nola ez ohar lehenik gorago aipatu ditugun Vansteenberghen aholkuen ez aipamenik, ez iruzkinik, ez oihartzunik ez dugula aurkitzen euskaldun astekarian? Doi doia, 1941 eko garizumako gutuna, "Fedeaz eta Penitentziaz" diharduena, dugu hatzemanen menturaz, hiru lau urte luze haietan.

"Ez dela Alemandu" zehazten du bai S.A. (Sauveur Arotzarena) berak norbaitek helarazi diokeen kritikei ihardetsiz, 1941 eko martxoaren 21 ean. Baina 1940 eko ekainean Alemanek Frantziako bataila irabazi zuten egunetik "fuilla itzultzea" erabakia zuen (1940/07/05), arauz "zuhurrago" iduritu baitzitzaion, "atzoko etsaiarekin eskuz-esku abiatzea, atzo putzu zolarat aurtiki gintuzten biligarroekin berriz eskuz-esku jartzea" baino (1940/11/29).

Horra zergatik, hautu hori eginez geroz, Eskualdunaren zuzendaria ez den batere herabere Pétain "Zaharraren", Ybarnegaray "Miretsiaren" eta hain gogoko dituen Pariseko Baudrillart, Marseillako Delay, Arras-eko Duthoit, Dijon-eko Sembel, Saint-Brieux-ko Serrand eta hainbeste apezpikuen mezuen ondoan, Hitler-en hitzaldien frantsesez oso osorik (1940/09/13) edo labur bildurik (1941/10/17), argitaratzeko, eta euskara ederrean itzulirik, (1942/12/11) irakurle euskaldunei eskaintzeko.

Nork dizkigu bada noizbait Arotzarenaren euskara eder horren paperak bilduko? Ez diote segur Michel Elissamburu-ren ez beste zenbaiten idazkiei zorrik, ez euskararen ez ideologiaren aldetik.

Angelesen, juduen, framazonen kontra erraiten eta egiten diren guzti-guztiak onartzen eta gorapatzten ditu bada astekari euskaldunak; hainbestetaraino non, oraino gutartean bizi

den Baionako Suarez jaun ezagunaren izena irakur baitaiteke bere helpidearekin haren orrialdeetan, 1941tik hona, astez aste argitaratzen diren Baionako, Biarritzeko, Hendaiaiko, Donibaneko edo Baigorriko "framazon handien" zerrendetan.

Juduek badakigu engoitik, zer pairatu izan zuten Hitler-en gizonak Europa osoaz jabetu ziren egunetan, baina Baionan berean, Juduak aspaldian ezagutzen dituen herrian, apez batek ez du lotsarik izanen idazteko: "Juduer aihar dira Europa gehiengan.... Ez dute sasoina Juduek... Frantzian ere sobera esku bazuten harturik. Anitz kargu eta ofizioetarik kanpo ezarri dituzte" (1941/04/11).

Eta Gomez Bankoaz jabetzen delarik Frantziako gobernuak, irakur dezakegu: "Sos horri sobera emanak dira Juduak... Ba omen dira gure sosari balioa galarazi nahiz ari zirenak" (1941/06/20).

Juduen kontrako neurri larriek ez dute beraz gure Xalbat batere harritzen, baitaki berdin berak: "Juduetan badela langile baino gehiago tratulant" (1941/08/15).

Ondoko astean hona zer ateraldi botatzen duen berriz, "Gauillista zituzta zu?" titulupean: "Komunistak, framazonak eta gorri beltzak ez aski, hor dituzte ere, azen ontzeko, Judio tzarren tzarrenak, bere eltze itsuei lotuak, Angelesek irabazten balute, hor genituzke beraz Frantzia errekarat eraman duten gizon nahasi guziak" (1941/08/21).

Haste hastetik, uste horretan finkaturik, eta Franco eta Hitler Hendaian elkarrekin solastatzen zirelarik, eta "Espainiako gertaren hobendun handienetarik bat", deitzen zuen bezala, Cataluniako Companys presidentea, Frantziara ihesi etorria, Pétainek Francoren esku ezarria zuelarik, eta Francok tiroz hilarazia, eta Pétain horrek berak, Frantziatik Londresera ihesi joana zen De Gaulle "jeneral ohia", galonak kendu ondoan, "sekulan hatxemana bazen", (Beharrik!) hiltzerat kondenatzen zuelarik, hots, 1940 eko azaroan, Arotzarena trufatzen zen "Antzara karrankariez".

Eta haien bizkar, "Sinesten dut berria" asmatzen zuen: "Sinesten dut gure adiskide bakar Anglesa baitan, zoinaren ahotik sortzen ohi baita Egia, eta zoinaren bihotzetik ateratzen baita Zuzena, eta De Gaulle haren esku-makila baitan, zoinak baitu gure Herria salbatu-ren" (1940/11/20).

Horrelako artikuluek urrunduko dituzte, jakina, ESKUALDUNA-tik, emeki emeki euskal idazle gehienak: Lehenik Saint-Pierre apezpikua, euskaraz ala frantsesez gerla hasiz geroz editorialer edo asko onturik zegoena: Hau bat batean ixiltzen da, 1941 eko apirilaren 8 an.

Honen adiskidea, Piarres Lafitte ikusten dugu oraino astekari euskalduneari mintzo 1942 ko urtarrileraino; bereziki Darlan amiralaren inguruko adiskide zenbaitek sinetsarazi diolarik, Vichy-ko gobernuak Frantziaren eskualdekatze berri bat egiteko asmuak duela, eta Eskual-Herrizaleak bat egin dezaketela xede horrekin, gure Iparaldeko Eskual Herrien "begitarte berezia" onar dezan azkenean Frantziak. Baina geroztik, P.L. sinadura itzaltzen da osoki.

Eta ez Oxobiren, ez Zerbitzariren, ez Leon Leonen sinadurarik ez dela astekarian nehon agertzen erran behar da. Domingo Soubelet kalonjea, zuzendari ohia, eta "Pétain Marechala" ren liburua idatzit duena haatik ikusten da noizbehinka, eta ere Louis Dassance, "Corporation Paysanne" Laborari Elkargoaren buru izaitea onartu duena. Besterik ez.

"Izengabekoari" ihardokiz bizkitartean, eta "Frantzia baitan sinetsiz" omen, Ingelesak haizkatu zituen Jeanne d'Arc sainduaren bideari jarraikiz, Francok eta Salazarek eman etsenplu ederrak segitzeko Jainkoak igorri Pétain Buruzagi bakarrarekin egonen da beraz azkene-raino ESKUALDUNA-ren azken zuzendaria:

“Batere razismoa onartu gabe, zertako ez dugu Alemaniari esku emaiten ahal komunisgoaren suntsitzeko?”, galdetzen dio oraino irakurleri, 1943 ko uztailaren 30 ean.

Eta harentzat “berri hitsak” diren albisteak gero eta maizago etorriko diren azken hilabeteetan, ez du Arotzarenak uko egingen, ez gogoia salduko: “Sasipetik odol eta nigar” besterik igurikatzen ez duelarik, 1944 eko ekainaren 22an, Zibero aldera, “Ospitale Miserikordiako sasipetar aitzindari galanta” deitzen duen Jauregiberritar Klement jaunari dei egiten dio, prestu eta geldi egon dadin, eta ber zerbakian, bere agurra bidaltzen dio “Frantses Miliziarri”; Milizia beldurgarri horren lana ospatzen duela oraino, astekariaren azken zerbakian, 1944eko abuztuaren 18 an.

Alta bada, Euskal Herrietako seme anitzek egiten ikusi eta ikasi dugun bezala, hainbeste aldiz bere hautu politikoak erlisionearen izenean egin dituen apezak durduza zerbait sendi duke azkenburuan, ezen 1944eko abuztuaren 4 eko zerbakian artikulua arraro bat aurkitzen dugu: “Apez bezenbat erlisione?” galdeari, ihardesten diona, “Apez bezenbat aburu”, etsituarekin.

Haizu bekit aitortzea, ene buruari galdetu diodala askotan, Baionako elizak jakin ote duen, 1940-1944ko epe horretan bizi izan duen esperientzia aberatsari bere fruitua ateratzen, eta zalantza horretan nagola oraino.

1995 eko azaroaren 26 an, Baionan.